

**IKASTARO ESPEZIALIZATUA  
TOKIKO GIZA GARAPENA**

**IRAKASKUNTZAKO GIDA**

**IRAKASGAIA**

**Erabakiak hartzerakoan gaitasun kolektiboak eta parte-hartze demokratikoa garatzea**

**Irakaslea:** Jokin Alberdi Bidaguren



**Jokin Alberdi Bidaguren**

Konstituzio Zuzenbide eta Europar Batasuneko Zuzenbideko irakaslea naiz Donostia-San Sebastiáneko Zuzenbide Fakultatean, UPV/EHU. Zientzia Politikoko lizentziaduna naiz, eta aspalditik dut lotura Hegoa Institutuarekin. Horrez gain, elkarlanean aritzen naiz GERNIKA GOGORATUZ Bakearen aldeko eta Gatazkak eraldatzeko Ikerketa Zentroarekin eta GEA/UAM taldearekin (Madrilgo Unibertsitate Autonomoko Ikasketa Afrikarren Taldea). Gai hauek pizten dute nire arreta: garapenaren alderdi soziopolitikoak eta juridikoak, giza eskubideak eta nazioarteko lankidetzaz, batez ere Saharaz

azpiko Afrikan eta, bereziki, Hegoafrikan eta Mozambiken, hor aritu bainaiz lanean. Garapenerako gobernu kanpoko hainbat erakunde eta elkartetako kidea naiz.

## SARRERA

Irakasgai honen bidez, kategoria eta tresna analitikoak eman nahi ditugu aktore publiko eta pribatuen arteko eragin-truke eta parte-hartze demokratikorako, eta TGGari lotutako hainbat alderdi soziopolitikorekin osatu nahi ditugu esparru teoriko-analitiko honen beste alderdiak.

Prozesu sozial eraldatzaileei dagokienez, ezinbestekoa da hausnarketa egitea eta ondo aztertzea parte-hartzean oinarritutako praktika demokratikoak, jendarte zibil, estatu eta merkatuko aktoreen arteko eragin-trukea, eta prozesu horiek azaltzeko modua. Horretarako, modulu honetan, TGGaren bi alderdi aztertuko ditugu, eta gaitasun indibidualak eta kolektiboak garatzeko funtsezko gakoak nabarmenduko ditugu.

- Lehenik eta behin, parte-hartze demokratikoa aztertuko dugu, pertsonen ongizatea eta gaitasunen garapena lortzeko, pertsonak, kolektiboak eta jendarteak parte hartu behar baitute beren etorkizunaren plangintza egiten. Horretarako, ezinbestekoa da honelako alderdi garrantzitsu hauek aintzat hartzea: botereko harremanen ikusmolde ideologikoa eta kulturala, sistema politikoak eta demokrazia, erabakiak hartzeko hausnarketa eta ordezkariak egokiak, ahalduntzea eta gaitasunen garapena bereziki baztertuta dauden sektoreei begira, eta beste auzi batzuk.

- Bigarrenik, hainbat kontu landuko ditugu, eragin-trukea izateko moldeak sendotzeko eta lurralde bereko komunitate, estatu eta merkataritzako aktoreak maila berean zutik jarriko dituen instituzionaltasun berria sendotzeko ahaleginak, eta jendartearen integritasuna aztertzeko. Estrategiak egituratu behar ditugu, oraingo sistematik harantz doan erabakiak hartzeko sistema batean jendarte eta hiritarrak egongo direla bermatzeko, oraingo sisteman enpresa handiek, klase politikoko sektore batzuekin elkar hartuta, beretzat hartuta baitute erabakiak hartzeko aukera. Kulturako testuinguruen eta ongizateko erregimenen arabera botere-harremanak desberdinak izango direla jakinda, gaitasun soziopolitikoak garatzeko prozesuek eta estrategiek garrantzi gehiago eman beharko diete gako batzuei edo besteei.

## HELBURUAK

Irakasgai honen bidez, sakonago aztertu nahi ditugu parte-hartze demokratikoarekin eta gobernantzarekin zerikusia duten kategoria eta tresna analitikoak, hain zuzen, tokiko giza garapenaren esparru teoriko-analitiko honetarako baliagarriak izan daitezkeen horiek.

Ikuskera kritikoa izanda, gaitasunen ikuspegiak askatasun politikoei eta demokrazia eta parte-hartzeari egin dizkien ekarpen nagusiak berrikusiko ditugu, ideia eta kategoria zientifikoak eraiki ahal izateko. Izan ere, ideia eta kategoria horiek lagungarriak izan daitezke prozesuekin batera erabiltzeko, jendarteko aktoreek gaitasun eta instituzio berriak eraiki edo berreskuratu nahi badituzte, beren ongizate indibidualean eta kolektiboan eragina duten erabakitze prozesuetan eraginkortasunez eta demokratikoki parte hartu ahal izateko.

## EDUKIAK

Bi multzo handitan egituratu dugu edukia, eta multzo horiek hainbat ikasgaitan daude azpizatuta. Horiekin batera, hainbat irakurgai jarri ditugu, batzuk oinarritzekoak eta nahitaezkoak, eta beste batzuk osagarriak.

**1. Multzoa. Gaitasunak (banakakoak eta taldekoak) garatzeko parte-hartze demokratikoari eta eragin-truke publiko-pribatuei buruzko ekarpen teorikoak.** Kontzeptu horien definizio nagusiak berrikusteaz gain, gaitasunen ikuspegiak eta beste joera kritiko batzuek demokrazia, parte-hartze eta gobernantzari buruz egin dituzten ekarpen nagusiak landuko ditugu.

**1. Ikasgaia.** Demokrazia, parte-hartze eta gobernantzari buruzko kontzeptu nagusiak berrikusteaz gain, bereziki nabarmenduko dugu kontzeptu horiek ez direla aski demokraziak gutxieneko kalitatea izango dutela bermatzeko, eta ez dutela ganorazko ikuspegirik barne hartzen baztertuen dauden sektoreek parte har dezaten lortzeko. Sarreran, kontzeptu alternatibo batzuk jarriko ditugu nagusi diren kontzeptuen aurrez aurre. Gero, garapenari buruzko ikasketetan demokrazia eta parte-hartzeari buruzko pentsamenduak izan duen bilakaera aztertuko dugu, eta ahalduntze, demokrazia eta gobernantzari buruzko eztabaidak azpimarratuko ditugu bereziki, funtsezko baldintzak direlako garapena lortzeko.

**2. Ikasgaia.** Ikasgai hau besteak baino luzexeagoa da. Bertan, garapenaren alderdi politikoa aztertzean aintzat hartu ez diren, eta TGGerako eta, orobat, gaitasunak garatzeko interesgarriak diren beste alderdi garrantzizko batzuk berrikusiko ditugu. Ikuspegi elitistak eta demokrazia ordezkatzaila gainditzen dituzten teoria eta ideia kritiko horiek aztertuko ditugu bereziki. Demokraziak balio hirukoitza duela dioen Amartya Sen-en ideia laburbilduko dugu. Horrez gain, beste alderdi batzuk nabarmenduko ditugu, adibidez, askatasun demokratikoak, deliberazio publikoa, baztertuen dauden sektoreen parte-hartzea, edota berdintasun sozioekonomikoa eta aniztasun kulturalarekiko errespetua gaitasunen ikuspegiko funtsezko gako gisa; kontzeptu horiek kapital sozialarekin eta ekintza kolektiboarekin duten lotura nabarmenduko dugu; emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerantz aurrera egiteko, aldaketa instituzionalek, partaidetzakoek eta demokratikoek jendarteko hainbat mailatan duten garrantzia azpimarratuko dugu; eta, azkenik, ideia batzuk aurkeztuko ditugu jendarteei protagonismoa itzuliko dien instituzionaltasun berriari buruz,

era horretan, jendartek aldaketa lortzeko estrategiak zuzendu ahal izango baitituzte lurraldeetatik abiatuta.

## **2. Multzoa. Gaitasunak garatzeko prozesuei laguntzeko kategoria soziopolitiko berrien eraikuntzarantz.**

**3. Ikasgaia.** Ikasgai honetan, giza gaitasunen erlaziozko edukian sakondu nahi dugu (giza garapenaren alderdi kolektiboan), eta, horretarako, kategoria eta kontzeptu berriak erabiliko ditugu, baliagarriak baitira jendartea aldatzeko prozesuen alderdi politiko-instituzionalak ebaluatzeko. Azken batean, ideia berri horien bidez, hobetu ezagutu eta ebaluatu ahal izango ditugu mendekotasuneko sistemak, eta berdintasunean oinarrituago dauden eta partaidetza kolektibo gehiago duten instituzioak eraiki ahal izango ditugu. Zehazki:

- Aditzera emango dugu lurralde desberdinetan izan daitezkeen botere-harremanen gakoak ezinbestez ikertu behar direla (sexu, sexualitate, etnia-arraza, jendarte-maila, arlo geopolitiko, geografiko edo erlijioari lotutako eragile eta/edo errealitate desberdinetatik abiatuta finkatutako mendekotasunak...);

- Martha Nussbaumek hainbat gogoeta egin zituen, afiliazioa giza gaitasun nagusizat hartuta. Horietatik abiatuta, kategoria batzuk erabiltzeko beharra aipatuko dugu, konpromiso kolektiboarekin, hain zuzen, elkarbizitzarekin, elkartasunarekin eta besteekin eragin-trukea izateko jarrerarekin zerikusia duten kategoriak;

- Horrez gain, beste kontzeptu batzuk proposatuko ditugu TGGaren azterketa soziopolitiko egiteko, adibidez, erresilentzia, hau da, zailtasunei aurre egiteko eta diagnostiko bateratua eta etorkizunerako ikuspegia eraikitzeko sistema sozial batek dituen gaitasunen multzoa. Eta, bigarrenik, kontzeptuen eta ideien beste multzo bat azalduko dugu, nagusi diren taldeen ikusmolde politiko-instituzionalei aurre egiteko, baliagarriak izan daitezkeelako instituzioetan aldaketak sorrarazteko (lurraldeko koalizioak, instituzionaltasun berria, eta instituzioak aldatzeko behar diren beste alderdi garrantzitsu batzuk).

## **3. Multzoa. Parte-hartzean oinarritutako prozesuak eta instituzionaltasun berria TGGaren esparruan aztertzeko arrastoak.**

**4. Ikasgaia.** Azken atal honetan, ideia batzuk jasoko ditugu, jarraibide batzuk emateko. Era horretan, lurralde bateko jendartek modu autonomoan finkatu ahal izango dute lortu nahi eta ahal duten etorkizuna.

Lehenik, tradizio kultural bakoitzari dagozkion osagaiak zehazteaz gain, komenigarritzat jotzen dugu jendarteetan dauden ongizate-erregimen desberdinak bereiztea. Parte-hartze demokratikoa eta eragin-truke publiko-privatua aztertzeko, ezinbestekoa da ongizatearen molde desberdinak aintzat hartzea (ongizate maila altuko jendartea den, edo segurtasun-sistema informalekin aritzen diren edota seguruak ez diren jendarteak ote diren). Errealitate desberdin horiek erabat baldintzatuko dituzte TGGaren alderdi soziopolitiko ebaluatzeko kategoria nagusiak.

Eta, bigarrenik, era sistematizatuan eta laburtuta aurkeztuko ditugu TGGeko prozesuetako parte-hartze eta gobernantza demokratikoa ebaluatzeko kategoria nagusiak. Lau alderdi hauek hautatu ditugu TGGaren alderdi soziopolitikoak eta jendartea aldatzeko tokiko prozesuak ebaluatzeko: ongizatea lortzeko prozesuetan parte hartzea, tokiko jendarteetako esparru soziopolitikoaren eta gobernantzako prozesuen integritasuna, garatzeko prozesuez jabetzeko maila, eta agentzia kolektibo "sendoa".

## MODULUAREN PROGRAMA

**1. Multzoa.** Gaitasunak (banakakoak eta taldekoak) garatzeko parte-hartze demokratikoari eta eragin-truke publiko-pribatuei buruzko ekarpen teorikoak.

### Ikasgaiak:

1. Demokrazia, partaidetza eta gobernantzari buruzko kontzeptu klasikoak garapenerako ikasketetan
2. Parte-hartze demokratikoa eta instituzionaltasun berria gaitasunen ikuspegian
  - 2.1. Demokraziaren balio hirukoitza
  - 2.2. Parte-hartze politikoa gaitasunen ikuspegian: ekintza kolektiboa, parte-hartze deliberatiboa eta emakumeak ahalduntzea
  - 2.3. Gobernantza, parte hartzeko prozesuak eta instituzionaltasun berria

**2. Multzoa.** Gaitasunak garatzeko prozesuei laguntzeko kategoria sozio-politiko berrien eraikuntzarantz.

### Ikasgaia:

3. Parte-hartze eta gobernantza demokratikorako gaitasun kolektiboak
  - 3.1. Botere-harremanen konplexutasuna
  - 3.2. Afiliazioa, parte-hartzea eta gaitasun kolektiboak
  - 3.3. Funtsezko beste kontzeptu batzuk: Erresilientzia eta berrikuntza instituzionala

**3. Multzoa.** Parte-hartzean oinarritutako prozesuak eta instituzionaltasun berria TGGaren esparruan aztertzeko arrastoak.

### Ikasgaia:

4. Parte-hartze demokratikoaren eredu analitiko baterantz eta lurraldeko aktoreen arteko eragin-trukea
  - 4.1. Parte-hartze demokratikoa eta gobernantza ongizateko hainbat erregimenetan
  - 4.2. TGGaren alderdi soziopolitikoak ebaluatzeko kategoria nagusiak

## LAN METODOA

Irakasgai hau osatzeko, oinarrizko dokumentu hau izango da testu nagusia: "Tokiko giza garapenaren alderdi soziopolitikoak: parte-hartze demokratikoa eta eragin-truke publiko-pribatua aztertzeko gako berriak". Gainerako irakasgaietan bezala, testu hori osatzeko, ariketa eta irakurgai batzuk iradokitzen ditugu. Hala behar izanez gero, kasu bakoitzean egin beharreko aldaketak edo ekarpenak egingo dira. Modulu bakoitzean, irakurgai nagusiak eta bigarren mailako irakurgaiak eskaintzeaz gain, ariketa batzuk jarri ditugu banaka edota taldeka egiteko.

Hona hemen lan-proposamena:

1. Moduluaren sarrerako bideoa ikustea.
2. Oinarrizko dokumentuko gai guztiak irakurtzea.
3. Nahitaez irakurri beharreko dokumentuak irakurtzea.
4. Proposatutako banakako edo taldeko ariketak egitea.

## NAHITAEZKO IRAKURKETAK / JARDUERAK

### **1. Ikasgaiari: Demokrazia, partaidetza eta gobernantzari buruzko kontzeptu klasikoak garapeneko ikasketetan**

Sarrera orokor gisa, bideo hau ikustea gomendatzen dugu (30'): <http://multimedia.hegoa.ehu.es/es/videos/38>. Bertan, Tokiko Giza Garapenari buruzko Nazioarteko Mintegian TGGaren alderdi soziopolitikoaz egin zen aurkezpena dago jasota: *lurraldetik eraldatzeko estrategien esparrurantz aurrera egiten* (Bilbo, 2013ko azaroa).

### **i) Demokrazia, partaidetza eta gobernantzari buruz nagusi diren kontzeptuak eta kontzeptu alternatiboak.**

- Irakurri zerrendan agertzen diren dokumentuak:

a) PÉREZ de ARMIÑO, Karlos (zuz.) (2000): Diccionario de Acción Humanitaria y Cooperación al Desarrollo, Bilbo: Hegoa. Sarrera hauek bakarrik:

- *Participación*. 418-420 or.  
<http://www.dicc.hegoa.ehu.es/listar/mostrar/167>
- *Buen Gobierno*. 82-84 or.  
<http://www.dicc.hegoa.ehu.es/listar/mostrar/24>

- *Empoderamiento*. 220-224 or.  
<http://www.dicc.hegoa.ehu.es/listar/mostrar/86>

b) REYES, Román (zuz.) (2009) Diccionario Crítico de Ciencias Sociales, Madrid, UCM. Sarrera hau bakarrik:

- *Poliarquía*:  
<http://pendientedemigracion.ucm.es/info/eurotheo/diccionario/P/poliarquia.htm>

c) ARGIBAY, Miguel; eta CELORIO, Gema (2009): Diccionario de Campaña: Conceptos clave para el debate sobre los acuerdos de Asociación Económica entre la UE y los países ACP. Bilbo: Hegoa. Sarrera hau bakarrik:

- *Gobernanza*. 77-79 or.  
[http://publ.hegoa.efaber.net/assets/pdfs/206/Diccionario\\_Campa\\_a.pdf?1309420766](http://publ.hegoa.efaber.net/assets/pdfs/206/Diccionario_Campa_a.pdf?1309420766)

Idatzi 400-500 hitz inguruko testu bat, eta laburtu bertan demokrazia, partaidetza eta gobernantzari buruz nagusi diren ikuskeren osagaiak edo ezaugarriak, hain zuzen, definizio alternatiboek dituzten osagaien edo ikuskeren aurrez aurre dauden horiek.

## ii) Kontsultatu demokrazia eta gobernantza neurtzeko sistema hauek:

- a) *Informe Freedom in the World de Freedomhouse*:  
<http://www.freedomhouse.org/>
- b) *Indicadores mundiales de Gobernanza del Banco Mundial*  
<http://info.worldbank.org/governance/wgi/index.aspx#home>
- c) *Índice de Gobernanza Africana Ibrahim* (Afrikako herrialdeak soilik):  
<http://www.moibrahimfoundation.org/iiag/>

Ariketak bi zati hauek ditu:

- 1) Hautatu interesatzen zaizkizun bi herrialde, eta erkatu haien askatasun zibil eta politikoko indizeak eta gobernantzako indizeak, giza garapeneko indizeekin: <http://hdr.undp.org/es/data>
- 2) Bila itzazu aurreko loturetan neurketa-sistemak prestatzeko erabili diren metodologiak. Egin hausnarketa bat orri batean, demokrazia eta gobernantza kontzeptuei buruz, eta indize horiek eraikitzeko erabili diren alderdi, aldagai eta kategoriei buruz.

## 2. Ikasgaian: Parte-hartze demokratikoa eta instituzionaltasun berria gaitasunen ikuspegiari

### i) Demokrazia eta gobernantza gaitasunen ikuspegiari

Irakurri ondoko bi testuak eta idatzi 400-500 hitz inguruko hausnarketa kritiko bat, galdera hauek oinarritzat hartuta:

- Gutxieneko berdintasun ekonomikoa eta soziala behar al da berdintasun politikoaren arloan aurrera egin ahal izateko?
- Zein neurritaraino dira garrantzitsuak arrazoibidea eta eztabaida demokrazian eta partaidetzan?
- Instituzio demokratiko berberak izan behar al ditugu leku guztietan? Instituzioak egindakoa imitatuz gero, bermatuta al dago garapen instituzional egokia?
- Berrikuntza instituzionala, alderdi garrantzitsua al da garapenak arrakasta izateko?

1) Demokrazia eta partaidetzari eta gaitasunen ikuspegiari buruzko irakurgaia:

DENEULIN, Séverine (2007): “¿Qué dice el enfoque de desarrollo humano acerca de la democracia?” *HDR Networks*

[http://www.dhl.hegoa.ehu.es/ficheros/0000/0332/Deneulin\\_%C2%BFQu%C3%A9\\_dice\\_un\\_enfoque\\_de\\_desarrollo\\_humano\\_acerca\\_de\\_la\\_democracia\\_2007\\_sp.pdf](http://www.dhl.hegoa.ehu.es/ficheros/0000/0332/Deneulin_%C2%BFQu%C3%A9_dice_un_enfoque_de_desarrollo_humano_acerca_de_la_democracia_2007_sp.pdf)

Ahal dela, hobe da ingelesezko testu hau irakurtzea:

DENEULIN, Séverine (2009): “*Democracy and political participation*”, hemen: DENEULIN, Séverine; honekin lankidetzan: Shahani, Lila (arg.) *An Introduction to the Human Development and Capability Approach. Freedom and Agency*, Ottawa, IDCR, 185-206 or.

2) Gobernantza eta gaitasunen ikuspegiari buruzko irakurgaia:

HA-JOON, Chang (2006): La relación entre las instituciones y el desarrollo económico. Problemas teóricos claves. *Revista de Economía Internacional*, 8. lib., 14. zk., 125-136 or.

<http://www.economiainstitucional.com/pdf/No14/hchang14.pdf>

### ii) Ikasgelako ariketa erabilgarria

Bigarren gaiak dituen edukiak ikuskera kritikoz eta parte-hartzea bultzatuz lantzeko, galdera-sorta bat proposatzen dizuegu, demokrazia eta gobernantzaren inguruan dauden ikuskerei eta praktikei buruz. Taldea erantzungo ditugu (2 edo 3 laguneko taldeetan), eta, gero, erantzunen bateratze-lana egingo dugu denon artean. Parte-hartzaile bakoitzak izandako esperientziak abiaburutzat hartuta (komunitateko erakundeetan, jendarteko mugimenduetan edota udalerrri, eskualde edota estatu bateko herritar gisa),



jakintza kolektiboaren bidez, demokrazia, partaidetza eta gobernantzaren definizio alternatiboak finkatuko ditugu. Parte-hartzaileek emandako erantzunak sistematizatu ondoren, harremanetan jarriko ditugu parte-hartze demokratikoari eta gobernantzari buruz irakasgaien lantzen ari garen eztabaida ofizial eta alternatibo nagusiekin.

## **Ariketaren aldiak:**

### **1) Talde-lana (30 minutu):**

Erantzun galdera hauei:

- Zer da demokrazia zuretzat? Eta parte-hartzea? Zer da demokrazia zure jendarteko mugimenduarentzat/ erakundearentzat? Zein dira parte hartzeko mekanismoak?
- Munduan, ba al da demokraziarik? Zenbat demokrazia dago zure herrialdean? Eta zure komunitaterik hurbilenean? Eta zure elkartean? Zein neurritaraino dira gai zure komunitate/ elkarteko pertsonak dagozkien arazoei buruz erabakitzeke?
- Zure ustez, nola har dezakete parte erabakiak hartzen, normalean esku hartzen ez duten pertsonak? Zer egin dezakegu baztertuta dauden sektoreek parte har dezaten? Posible al da beste aktore batzuekin koaliziorik egitea? Norekin?
- Estatuko instituzio sendorik behar al da garapenaren arloko arazoak konpontzeko? Nola sendotu dezakegu jendarteko instituzioek antolatzeke eta erabakitzeke duten gaitasuna? Noiz aritu behar dugu elkarlanean haiekin eta noiz egin behar diegu aurre?
- Ba al dago modurik baztertuta dauden sektoreentzat funtzionamendu politiko eraginkorrago bat egituratzeko, eta elite politikoek eta ekonomikoek dituzten abantailak indarrik gabe uzteke? Nola?

### **2) Bateratze-lana egitea (30 minutu)**

**Metodologia:** Bi aukera daude: 1) Ikasleen ezaugarriak ezagututa, banakako fitxak presta ditzakegu, parte-hartzaile bakoitzaren jatorriaren eta/edo erakundearen arabera egokituta. 2) Bestela, galdera-multzo bana eman diezaiokegu taldeei, eta, era honetan, talde guztiek ez dituzte galdera guztiak landu beharrik izango.

### 3. Ikasgaian: Parte-hartze eta gobernantza demokratikorako gaitasun kolektiboak

#### 1. Ariketa. Subjektu politikoa eta botereko harremanen konplexutasuna

Ikusi Falan Natalia Atz Sunuc eta Paula Irene del Ciden ondoko bideoa. Bertan, argi azalduta dago Guatemalako eskualde bateko feministek nola babesten duten bertako lurralde bat: <https://www.youtube.com/watch?v=goblXOPeG2w>

Idatzi hausnarketa bat, Paula Irenek subjektu politikoari eta mendekotasuneko sistema multipleari buruz egiten dituen iruzkinak aintzat hartuta, eta ahalegindu zaitez ikastaroan parte hartzen dutenek ezagutzen dituzten testuinguruetan kokatzen. Hausnarketa osatzeko, galdera honi eman diezaiokezu erantzuna: ezagutzen duzu Falan Nataliak azaldutako Guatemalako erakunde feministen antzekoa den esperientziaren bat?

Ondoko dokumentu pedagogiko hau lagungarria izan daiteke hausnarketa hori egiteko:

Del CID, Paula Irene (2010), Modulo 5: Sujeto político. *Escuela de Formación Política Feminista*, Asociación Feminista La Cuerda, Asociación de Mujeres de Petén-Ixqik eta Alianza Política Sector de Mujeres, 36-40. or. Hemen: [http://www.semillerosdepensamientos.org/include/uploads/nodo/MODULO\\_5\\_\(SUJETO\\_POLITICO\).pdf](http://www.semillerosdepensamientos.org/include/uploads/nodo/MODULO_5_(SUJETO_POLITICO).pdf)

#### 2. Ariketa. Oinarrizko kontzeptuak: Afiliazioa, erresilientzia eta berrikuntza instituzionala

Irakurri zerrendako dokumentuak. Ondoko kontzeptu hauekin dute lotura:

##### **Afiliazioa**

a) GOUGH, Ian (2007); El enfoque de capacidades de M. Nussbaum: un análisis comparado con nuestra teoría de las necesidades humanas. *Papeles de Relaciones Ecosociales y Cambio Global*, 100. zk., CIP-Ecosocial/Icaria, 2007/08ko negua, 177-202 or. (ahal dela, 182-185 eta 191-194 or.). Hemen: <http://www.otrodesarrollo.com/desarrollohumano/GoughEnfoqueCapacidadesNusbaum.pdf>

##### **Erresilientzia**

b) CHAMOCHUMBI, Walter (2014); Desarrollo endógeno, territorio y resiliencia de los pueblos originarios: apuntes de prospectiva. ALAI, América Latina en Movimiento (2014-01-27). Hemen: <http://alainet.org/active/70789&lang=es>

## Berrikuntza instituzionala

c) COSTAMAGNA, Pablo (2013); Ensayo sobre un diálogo entre el enfoque del Desarrollo Territorial y el Desarrollo Humano Local desde una perspectiva latinoamericana. *Seminario Internacional sobre Desarrollo Humano Local. Avanzando en un marco de estrategias de transformación desde el territorio.* Hegoa, 2014ko azaroaren 14-15a. Hemen:

<http://seminariodhl.org/include/uploads/nodo/Ensayo-Seminario-Hegoa-Oct-2013-Costamagna.pdf>

Idatzi 400-500 inguruko testu bat, eta laburbildu kontzeptu horiek gaitasunen garapenarekin duten zerikusia.

## 4. Ikasgaien. Parte-hartze demokratikoaren eredu analitikoa eta lurraldeko aktoreen arteko eragin-trukea

**Azken ariketa. Aplikatu ondoko koadroan agertzen diren arrastoetako batzuk lurralde edo tokiko garapeneko esperientziaren bati.**

### 1. Aldia. Talde-lana (30 minutu)

Erabili proposatzen diren kategoria nagusietako bat, lurralderen batean izaten ari diren eta parte-hartzaileek ezagutzen dituzten garapen-esperientzien alderdi sozio-politikoa ebaluatzeko.

#### PISTAS PARA UNA NUEVA PROPUESTA DE ANÁLISIS DE LOS PROCESOS SOCIO-POLÍTICOS DEL DHL

**Matriz de responsabilidad institucional:** (Gough y Wood):  
Explicitar las características que ofertan el Estado, el Mercado, la Comunidad y las Familias en cada contexto concreto, y evaluar a los distintos actores de ese territorio y sus funciones en la generación de bienestar individual y colectivo

	MERCADO	ESTADO	COMUNIDAD	HOGAR
ESTADO DE BIENESTAR				
RÉGIMEN DE SEGURIDAD INFORMAL				
RÉGIMEN DE INSEGURIDAD				

**Categorías centrales para evaluar la dimensión socio-política del DHL**

#### Evaluación de la participación en los procesos de DHL

- Interés por los asuntos públicos
- Existencia de espacios formales e informales para una deliberación de calidad
- Cuestionamiento de las situaciones injustas provocadas por instituciones y sistemas
- Grado de organización política de los sectores más excluidos
- Existencia de alianzas solidarias entre sectores excluidos y privilegiados
- Consenso sobre valores y objetivos y bienes comunes prioritarios
- Existencia de espacios para la participación en la elaboración de políticas públicas

#### Evaluación de la integridad del marco socio-político en las sociedades locales

- Diagnóstico de las actuaciones de los diferentes niveles gubernativos
- Interrelación entre los diferentes niveles gubernativos (local-nacional)
- Capacidades de los gobiernos locales para la transformación en términos de DHL

#### Evaluar el grado de apropiación de los procesos de DHL

- Asegurar que la apropiación no se impone desde fuera
- Apropiación de las preferencias y de las prioridades por parte de las personas
- Apropiación colectiva de un proceso de cambio que pretende reducir las desigualdades

#### Evaluación de la agencia colectiva y las capacidades funcionales para el proceso de DHL

- Grado de compromiso responsable hacia los demás (capacidad de afiliación) por parte de los distintos actores
- Existencia de una identidad colectiva para llevar adelante el proceso de cambio con ambición, convicción y determinación
- Existencia de espacios de resistencia y de saberes locales

## 2. Aldia. Bateratze-lana egitea (30 minutu):

### IRAKURGAI OSAGARRIAK

#### 1. Ikasgaian

- COLINO, Cesar; DEL PINO, Eloísa (2008): "Democracia participativa en el nivel local: Debates y experiencias en Europa". *Revista catalana de dret públic*, 37- zk., 247-283 or.
- GRAÑA, Francois (2005): "Diálogo social y gobernanza en la era del 'Estado mínimo'". *Cinterfor/OIT, Papeles de la oficina técnica*, 16. Montivideo, Cinterfor/OIT.
- GONZÁLEZ MARTÍN, Miguel (2007): "¿Ser como Dinamarca? Una revisión de los debates sobre gobernanza y ayuda al Desarrollo". Hegoa. *Lan Koadernoak*. 42. Bilbo, Hegoa.
- JAUREGUI, Gurutz (2013): *Hacia una regeneración democrática. Propuestas para la supervivencia de la democracia*. Madril, Catarata.
- SEN, Amartya (2009): *El valor de la democracia*. Bartzelona, El viejo topo.
- SUBIRATS, Joan (2007): Democracia, participación ciudadana y transformación social. Hemen: Pedro Ibarra eta Igor Ahedo (arg.). *Democracia participativa y desarrollo humano*. Oñatiko LSNE/Dykinson, 23-35 or.
- VIADERO ACHA, María, ALBERDI BIDAGUREN, Jokin (2011): La incorporación de la Participación y la Equidad de Género en las Cooperaciones Autonómicas – Genero-ekitate eta partaidetza, autonomia-erkidegoen lankidetzan. *HEGOA*. 54. *Lan Koadernoa*. Bilbo, HEGOA, 22-26 or.
- VON BEYME, Klaus (1994): Teoría política del siglo XX. De la modernidad a la posmodernidad. Madril, Alianza Universidad, 320-323 or.
- WHITE, Sarah C. (2001): "Despolitizando el desarrollo: los usos y abusos de la participación". Hemen: INTERMÓN/OXFAM, *Desarrollo, Organizaciones No Gubernamentales y Sociedad Civil*, 158-172 or.

#### 2. Ikasgaian

- ALGUACIL, Julio (2005): "Los desafíos del nuevo poder local: la participación como estrategia relacional en el gobierno local". *Polis, Revista Académica de la Universidad Bolivariana*, 12. zk., 1-15 or.
- NUSSBAUM, Martha C. (2002): *Mujeres y el Desarrollo Humano. El enfoque de las capacidades*. Herder, Bartzelona.

- PÉREZ ZAFRILLA, Pedro Jesus (2010): “La desigualdad de recursos: un reto pendiente para la Democracia Deliberativa”. *Daimón. Revista Internacional de filosofía*. 3. gehigarria, 163-170 or.
- SUBIRATS, Joan (2007): Democracia, participación ciudadana y transformación social. Hemen: Pedro Ibarra eta Igor Ahedo (arg.). *Democracia participativa y desarrollo humano*. Oñatiko LSNE/Dykinson, 23-35 or.
- VILLALBA, Unai (2008): “El empoderamiento entre la participación en el desarrollo y la economía social”. Hemen: ESPINOSA, Betty (koord.) *Mundos del trabajo: pluralidad y transformaciones contemporáneas*, Quito, FLACSO, 297-314 or.

### 3. Ikasgaiak

- BERDEGUÉ, J.; et al. (2012): “Territorios en Movimiento. Dinámicas Territoriales Rurales en América Latina”. *Documento de Trabajo nº 10. Programa de Dinámicas territoriales Rurales*. Santiago (Txile), Rimisp.
- Del CID, Paula Irene (2010), Modulo 5: Sujeto político. *Escuela de Formación Política Feminista*, Asociación Feminista La Cuerda, Asociación de Mujeres de Petén-Ixqik eta Alianza Política Sector de Mujeres.
- FARIÑAS, Sarai; PERIS, Jordi; BONI, Alejandra (2013): “El enfoque almanario como catalizador para el desarrollo de las capacidades colectivas y el fortalecimiento de la agencia fuerte. Estudio de caso en el contexto indígena de Sipacapa, Guatemala”. *Unibertsitate eta Garapenerako Lankidetzari buruzko VI. Biltzarrean aurkeztutako txostena*, Valentzia, 2013ko apirila. (2014ko urtarrilaren 15ean kontsultatua).
- REYES, Agustín (2008): “Comunidades de significación como capacidades colectivas. Una revisión comunitarista de la teoría de Amartya Sen”. *Areté. Revista de Filosofía*. XX. lib., 1. zk., 137-163 or.
- SASSEN, Saskia (2006): “Hacia una proliferación de ensamblajes especializados del territorio, autoridad y derechos”. *Cuadernos del Cendes*. Año 23, 62. zk., 95-112 or.